



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

UDALAREN OSOKO BILKURAREN AKTA

BERTARATUAK

alkate-udal burua

IÑAKI AZPIROZ BELDARRAIN

zinegotziak

JONE ZUBELDIA ALTUNA

ENEKO ARTEAGA USANDIZAGA

ITZIAR SAENZ DE OJER MARTINEZ

IRAITZ OLAETXEA BALERDI

SABINO SAN SEBASTIAN MURUA

AITZOL ZUBELDIA IBARLUZEA

IDAZKARIA

ANA JESUS ZABALA GARMENDIA

Lizartzan, 2019ko azaroaren 18an, arratsaldeko 19:00etan, eta Udaleko alkate udalburua, Iñaki Azpiroz Beldarrain izanik, Udaletxeko Bilkura Aretoan bildu dira alboan adierazitako zinegotziak.

Bilkuraren fede ematen du Ana Jesus Zabala Garmendia, udal-idazkari-kontu hartzaileak.

Bilkurari hasiera eman dio presidenteak, eta hauek izan dira jorratutako

GAIK

LEHENA. AURREKO BILKURAKO AKTA ONARTZEA.

Alkateak, aurreko saioaren aktari ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu da.

BIGARRENA. ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Udal honi subsidiarioki aplikagarri zaion apirilaren 2ko 7/85 Legearen 22.2 a) artikuluan adierazitako ahalmena gauzatzearren, eta Tokiko Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko Araudia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 42. artikuluan adierazitakoari jarraiki, Udalburuak Batzarrari jakinarazi dizkio ohiko azken bileraz geroztik hartutako erabakiak:

2019/378 Dekretua

2019/381 Dekretua

2019/387 Dekretua

2019/391 Dekretua

2019/395 Dekretua

2019/399 Dekretua

2019/380 Dekretua

2019/386 Dekretua

2019/389 Dekretua

2019/393 Dekretua

2019/397 Dekretua

2019/401 Dekretua



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

2019/403 Dekretua
2019/407 Dekretua
2019/410 Dekretua

2019/406 Dekretua
2019/408 Dekretua

Jakinaren gainean gelditu da Batzarra.

HIRUGARRENA. LIZARTZAKO OSTATUAREN KONTZESIO
ADMINISTRATIBOAREN LEHIAKETAKO BALDINTZA
ERREGULATZAILEEN PLEGUA ONARTZEA

Lizartzako Ostatu Kontzesio Administratiboaren Lehiaketako baldintza erregulatzailen pleguari hasierako onarpena ematea.

Baldintza Pleguak zortzi egun naturaletan jendearen informazioarako agerian jarrita edukitzea, interesatuek hauek aztertu eta egoki irizten dituzten alegazioak aurkeztu ahal izateko.

Informazio publikoko epealdian alegaziorik aurkezten ez bada, baldintza pleguak behin betiko onartutzat jotzea.

Aldi berean, lizitazioa iragartzea, hau atzeratu egingo delarik baldin eta Baldintza Pleguaren aurka alegazioak aurkezten badira.

LIZARTZAKO OSTATUAREN KONTZESIO ADMINISTRATIBOAREN
LEHIAKETAKO BALDINTZA ERREGULATZAILEEN PLEGUA

1. **art.-** Kontzesioaren xedea.

Lizartzako Udala Ostatuaren jabea da, eta lehiaketa publikoa irekitzen du kontzesio administratiboa emateko asmoz, ondorioz ustiapena baimentzeko kontzesionatzaileari.

Ostatua ondoko gunez osatua dago:

- Taberna
- Jangela
- Aldagela
- Biltegia

2. **art.-** Kontzesionatzailearen betebeharrak.



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

Ostatuaren ustiapenaren zerbitzuak, ondorengo betebeharrak dakar:

- a) Ostatuaren zerbitzurako erabiliko diren instalazio eta lanabesen garbiketa.
- b) Egoitzako instalazio eta lanabesen garbiketa.
- c) Mahaira eta egon-gelara bere kabuz kontsumizioak eraman ezin dituztenei laguntza eman.
- d) Jangelaren uztea otorduko orduetatik kanpo iharduera anitzen erabilpenerako.

3. art.- Behin behineko adjudikazioa egiten denetik urte bateko kontzesioko epea izango du, urtero luzatu ahal izango delarik bost urteko mugarekin, edozein alde hilabete aurretik ez badu denuntziatzen.

4. art.- Esleidunak, lehen urteari dagokion ustiapenaren ondorioz, Lizartzako udalari ordaindukio dion kanona:

1. Urtea: 50 €/hilabetea
2. Urtea: 100 €/hilabetea
3. Urtea: 100 €/hilabetea
4. Urtea: 150 €/hilabetea
5. Urtea: 150 €/hilabetea

Ordainketa hilabete horretako lehen 10 egunetan burutuko da. Esleidunak kontu korrante bat ahalbidetuko dio Udalak kanona kobratu ahal izateko.

5. art.- Ordutegia:

* Gutxieneko ordutegia:

- Azarotik apirilera: 10:00 – 22:00
- Maiatzatik urrira: 10:00 – 23:00

* Asteko jai eguna:

- Asteko jai eguna ASTEARTEA izango da.
- Astearte jai bada, asteazkena izango da Ostatuaren jai eguna.
- Astearte jai bezpera bada, osteguna izango da Ostatuaren jai eguna.



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

- Festak edo ekintza bereziren bat tokatu ezkerro, asteakena izango da Ostatuaren jai eguna.

* Oporrak

Abuztuko lehen 3 astetan Ostatua itxi ahal izango da.

6. art.- Esleidunak berak zuzenean bete beharko ditu kontzesio honetan aipatzen diren lanak. Ez du inolako lan harremanik izango udalarekin, beste hainbeste dagokio kontrata lezakeen langileriarekin, honen Gizarte Segurantzako afiliazioa esleidunaren kontura izango bait da.

Esleidunak alta eman beharko du Gizarte Segurantzako autonomoetako erregimen berezian, iharduera ekonomikoetako zergan, eta dagozkion beste zerga edo tasetan.

7. art.- Ondorengo gastuak esleidunaren kontura izango dira:

* Ostatuko (taberna, jatetxea, aldagela eta almazena) ontzien konponketa eta berriketa, aparailu elektrodomestikoko eta beste batzuen mantenimendu eta konponketa.

* Ostatuko eta Erabilera anitzeko egoitzaren garbitasun, argindar, ura, gasa, zaborrak eta estolderi gastuak.

Bi urtetik behin, Ostatuaren pintaketa (taberna, jatetxea, aldagela eta almazena).

8. art.- Esleiduna behartuta egongo da kontzesioak dirauen denboran, zerbitzu eta garbitasun egoki bat ematen instalazio guztietan, udalak honi dagokionez ezartzen dituen arauak betez. Baita ere, establezimendu publikoetarako ematen diren osasun janariei buruzko xedapen eta arauak bete beharko ditu.

9. art.- Hondakinak, Udalak gai honi buruzko araudian ezarritako moduan kudeatzeko ardura, beti ere, hondakin mota bakoitzaren arabera sailkatuz kasuan kasuko eduki ontzietan.

10. art.- Ostatuaren funtzionamenduaren barruko ordena, zabaldu eta ixteko ordutegia, garbitasuna eta lokaleta zerbitzuen osasun baldintzei buruz udalak zaintze eta kontrol lanak egin ahal izango ditu, eta esleindunari informazioa edo behar duen dokumentazioa eskatu ahal izango dio, iharduerak sortzen dituen edozein motako beharrak betetzen diren edo ez akreditatzeko.



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

Nolabaiteko akatsik antzemango balitz behar den akta idatziko litzateke, eta lehen aldian idatziz oharterazioko litzaioke eta leudekeen kalteak ordaintzera behartuko litzateke, eta bigarren aldian kontratua hautsiko litzateke, esleidunak inolako eskubiderik gabe lokaletik alde egin beharko lukeelarik bertako tresnak utzirik, honek ez liokelarik salbuetsiko sortu dituen erantzunkizunei aurre egiteko.

Udalak erabakiko balu Ostatua behin behingoz edo behin betirako ixtea, esleidunak ez luke eskubiderik izango inongo motatako indemnizazio edo konpentsaziorik jasotzeko.

Lokala utziko ez balu, sortu daitezkeen erantzunkizun penaletik aparte, udalak edozein organo erabiliz, zigor edo premiamendu neurriak erabili ahal izango ditu, agindutakoa bete dadin.

11. art.- Esleidunak ezingo du hirugarren bati lagapena utzi udalaren baimenik gabe.

12. art.- Esleidunak ezingo ditu obrak egin Udalaren baimenik gabe.

13. art.- Esleiduna erantzule izango da pertsona edo gauzei sortu daitezkeen edozein kalteengatik nahiz eta iharduera udalaren jabego edo menpean egon.

14. art.- Udala behartuta dago lokalak, bere instalazio eta haltzariak aseguratuzera egokiak diren kopuruetan.

15. art.- Udalak kontratua salatu eta indarririk gabe utzi lezake, plegu honetan zehazten diren baldintzetatik edozein bete gabe utziko balitz.

Era berean, eska liezaioke esleidunari kontratazio honek sortarazten dituen ekonomi arloko obligazioen ordainketak eguneratuak izatea, ordaintzeke dauden zorrak dagozkien gainkargu eta guzti, premiamendu bidetik kobratu ahal izango direlarik.

16. art.- Lagapenerako zehaztu den denbora bukatutakoan amaituko da kontratua ere, eta esleiduna behartuta geratuko da alde egiteko erabili dituen lokalak eta hauei atxekitutako ondasunak utsik eta aske uztera, udala ahalmen duta egongo delarik usketa erabaki eta egiteko.

Kontratoaren luzapenik balego, hau ere bukatu ahal izango da esleidunak errenunziazten duelako, udalari idatzi bat zuzenduz hiru hilabeteko aurrerapenarekin.



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

17. art.- Udalak argituko ditu baldintza plegu hauek aplikatzerakoan sortu daitezkeen zalantza guztiak eta plegu honetan aurrikusten ez diren edozein zalantzari dagokionean, udaletako kontratazio eta ondasunen erreglamenduak dituzten ebazpenen bitartez eta indarrean dauden beste xedapen batzuren bitartez arautuko da kontzesioa.

18. art.- Plegu honetan aurrikusten den lehiaketaren bitartez gauzatuko da adierazi den zerbitzu horren eleispena, eta horretan aurrikusi gabe dagoen oroako udaletako kontratazio erreglamendurako 40. artikulua eta aplika daitezkeen gainerako xedapenek aginduko dute.

19. art.- Baldintza plegua eta beste aurrekinak udal bulegoetan aztertu ahal izango dira.

20. art.- Esleidunak euskararen ezagutza eta erabilera izatea nahitaezkoa eta ezinbestekoa da, baita jende aurrean lana egingo duen beste pertsonak ere.

21. art.- Esleitzeko irizpideak:

Lizartzan erroldaturik egotea	Gehienez 2 puntu
Langabezian egotea	Gehienez 2 puntu
Ostatua urte osoan zehar zabalik edukitzea	Gehienez 2 puntu
Sukaldariaren ikasketak	Gehienez 3 puntu
Sukaldariaren esperientzia	Gehienez 3 puntu
Jatetxean bertako produktu eta produktu jasagarrien erabilera	Gehienez 3 puntu
Lizartzan bizi diren pertsonak kontratatzekeo konpromisoa	Gehienez 5 puntu
Zerbitzua hobetzeko aparteko ekitaldiak	Gehienez 10 puntu
Entrebista pertsonala	Gehienez 20 puntu

Irizpide hauek memoria baten idatziz aurkeztu behar dira.

22. art.- Behin behineko garantiarik ez dute aurkeztuko parte hartzaileek.

23. art.- Behin betiko bermea MILA (1.000,00) €-takoa izango da:



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

- 400,00 € kontratua sinatzean.
- 50,00 €/hilabetetan (lehen 12 hilabetetan)

Berma horren bitartez erantzun beharko dio kontratu honetako obligazioak betetzeari.

Udaleko kontratazioa erreglamenduko arauen eta horiek alda zitzaketen ondorengo xedapenen arabera itzuliko da behin betiko berma hori.

24. art.- Proposamenak jarraian azaltzen den eredia bete beharko dute:

.....jaun/anderea, bizi dena, N.A. zenbakia, ahalmen juridiko eta ihardutekoaren jabe delarik, eta jakin duenez Lizartzako Udalak deialdia egin duela Ostatuko zerbitzua erabili eta ustiatzeko lagapen administratiboari dagokion esleipena ematearren, horretarako onartu den baldintza plegua ere ezaguturik, aipatu lehiaketan parte hartu nahi du, eta erabilpen eta ustiaketa hori aipatutako baldintzen arabera egitera behartzen du bere burua, hortik eta zuzenean edo subsidiarioki aplikatu daitezkeen indarrean dauden arautetaik sortzen diren betebeharrak eta erantzunkizun guztiak onarturik.

Lekua, data eta sinadura.

25. art.- Lehiaketan parte hartu nahi dutenek, 15 lanegunen epean aurkeztuko dituzte bere proposamenak, eta hauek Udalak aztertuko ditu. Onartutako baremoak aplikatu ondoren, kontratazio proposamena egingo du bere kasuan, eta hau Udal Plenoak onetsiko du.

LAUGARRENA. AZAROAREN 25eko ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Azaroaren 25a, emakumeen kontra burutzen den indarkeria mota oro, guztiz onartezina dela esateko eguna da; gainera, indarkeria sortzen duten eragile eta egitura guztiak errefusatzeko ditugula esateko eguna da, eta gure herrian ez dugula ez bakerik ez normalizaziorik izango emakume izate hutsagatik emakumeak hiltzen eta erasotzen jarraitzen den bitartean aldarrikatzeko eguna. Horregatik, egun honetan erakunde publikoak, borroka horretan dugun lehentasunezko eragile-izaera berretsiz, konpromiso zehatzak hartu behar ditugu.

Beraz, Lizartzako Udalaren, EH Bilduko taldeak honako adierazpen instituzional hau aurkeztu nahi du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta ondoren onartzeko.



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

ZIOA:

Azaroaren 25a "Emakumeen kontrako indarkeria ezabatzeko nazioarteko eguna" dela-eta, Lizartzako Udal honek, bere egiten du gure lurralde, herrialde eta herriak, indarkeria matxistarik gabeko gune gisa eraikitzeko ardura. Eta lehentasunezko konpromiso politikoa berresten du indarkeria mota horren adierazpen guztien kontrako borrokan, egiturazko jatorriaren eta betikotzen duen normalizazioan eraginez, orden sozial patriarkala ezinbestez aldatzeko eta, emakumeak libre biziko diren justizian eta berdintasunean oinarritutako elkarbizitza eta emakumeen eta gizonen arteko harreman ereduak errealitate bihurtzeko xedez.

Euskal Herrian, estatistikak aspalditik ari dira agerian uzten indarkeria matxistak gora egiten jarraitzen duela: urtea hasi denetik 3 emakume erail dituzte. Hala ere, ezin dugu ahaztu indarkeria honen adierazpen gehienek, egunero gertatzen direnak, normalizatuak eta inbisibilizatuak jarraitzen dutela.

Nola hedabideak, publizitatea, telebista, hezkuntza ereduak, emakumeen errepresentazio justuaren falta eremu guztietan edo euren presentzia genero estereotipo eta rol diskriminatzaileak bultzatuz, hala sinesmenak, praktikak eta jarrerak, besteak beste, injustua den eta emakumeak gutxien dituen orden sozialaren parte dira. Orden hori soziala, kulturala, ekonomikoa eta sinbolikoa da, bizitzaren arlo guztiak blaitzen ditu, publikoak nahiz pribatuak, eta, emakumeak genero mandatu patriarkalapean izateko asmoz, indarkeria matxistaren adierazpen guztiak erabiltzen ditu.

Erailketa matxistek gero eta arreta mediatiko gehiago erakartzen duten heinean, (gehienetan emakumeak berbiktimizatzeko edo erantzukizuna emakumeengan uzteko errelatoekin), jendarteak irmoki gaitzesten ditu. Gure ardurak, ordea, haratago joan behar du: indarkeria mota latz hauek legitimatzen eta errazten dituzten indarkeria matxistak, mezu eta adierazpen desberdinen bidez egindakoak guztiak, ikusarazi behar baititugu: jendartean onarpen zabala dutenak eta normalizatuak mantentzen direnak, emakumeek egunero jasaten dituztenak, eta hala izan ez arren intentsitate baxu gisako identifikatzen direnak. Besteak beste, musika munduko hainbat letra zein jarrerak, filme zein bideojokoetako rolek edo hedabideek transmititzen duten indarkeria sinbolikoaz ari gara, emakumeen bizitzak eta gorputzak kontrolatzeko saiakerak, eremu guztietan femeninotzat jotzen denaren gutxiespenenaren bidez gauzatzen den indarkeria psikologikoaz edo soldata txarretan edo lan baldintza prekarioetan antzeman dezakegun indarkeria ekonomikoz ari gara.



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

Aurten, mugimendu feministaren beste mugarri batean, milaka emakumek hartu dituzte Euskal Herriko kaleak, aski dela ozen esateko; milaka emakumek planto egin dute emakumerik gabe mundua gelditzen dela bisibilizatzeko; eta beste horrenbestek aldarrikatu dute sistema judiziala patriarkala dela eta emakumeak babestu beharrean ardura haien bizkar uzten ari dela esan dutenak, erasotzaileak justifikatuz.

Feminismoak erakutsi digu errealitate bat aipatzeak ikusgai bihurtzen duela: indarkeria, bere adiera guztietan, gizonen eta emakumeen arteko egiturazko ezberdintasunak mantentzeko tresna nagusietako bat den heinean, ikusezin bihurtu da eta alderdi pertsonalei garrantzi handiegia ematen zaie, eta ikusarazi nahi digute indarkeriazko gertakariak arrazoi pertsonalen ondorio direla eta ez arrazoi sozialen ondorio. Ez da nahikoa indarkeria-adierazpen jakin batzuk aipatu eta salatzea, horrelako gertakari latz bat gertatzen den bakoitzean; gertakaria eragin duten arrazoiak jo behar da, sustraira jo behar da, eta hori egitera, erakundeon ardura ere bada.

Zeharkako esku hartze integralak eta iraunkorrak abian jarri behar ditugu: berbiktimizazioa baztertuta, emakumeak subjektu aktibo gisa hartuko dituzten esku hartzeak; errudun bilakatuko ez dituen esku hartzeak eta, ahots propioa, eragile aktibo diren neurrian, aitortuko dizkieten esku hartzeak. Horretaz gain, bermatu behar ditugu genero ikuspegi ahalduzailerik barnebiltzen duen artatze sistema eta erreparazio prozesuak, bai banakoak, bai kolektiboak. Giza eskubideaz ari garen heinean, instituzioen betebeharra da, alegia, mota guztietako indarkeriarik gabeko bizitzak izateko eskubideaz.

Eta zeregin hori, gure egin behar dugun konpromiso hori, gizartea osatzen dugun eragile guztiok gure egin behar dugu, hala egiten ez badugu, indarkeria matxistari eusten jarraituko dugulako. Denon erantzukizuna delako bakoitzaren eragin-eremutik aurre egitea, indarkeria matxista sortzen, biderkatzen edo normalizatzen duten heinean gure instituzio eta erakunde aldatzea: erakunde publikoak, kultur-eragileak, hedabideak, lan-arloko eragileak eta eragile ekonomikoak, ahaztu gabe banakakook dugun ardura.

Tokiko erakundeak, indarkeria matxista guztien kontra jarduteko eremu egokiak dira: erakundeak, eskolak, aisialdi edo kirol guneak, etab., betiere jendartea osatzen duten kolektibo eta arlo guztien artean burutu beharreko lana da, denok interpelatzen gaituen arazo soziala den einean.



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

Horregatik, indarkeria matxistaren aurkako nazioarteko egun honetan, sendo adierazi nahi dugu Euskal Herria feminista, justu eta ekitatezko baten aldeko aldarrikapena, bide horren eraikuntzan honako konpromiso hauek gure gain hartuz:

PROPOSAMENA:

- 1.- Lizartzako Udal honek, Emakumeen Munduko Martxak bultzatutako indarkeria matxistaren aurreko erantzun-protokoloa bere egiten du.
- 2.- Lizartzako Udal honek Foru Aldundiari eta Emakunderi / Nafarroako Berdintasunerako Institutuari eskatzen die emakume eta gizonen arteko berdintasunaren alorreko aurrekontu-partidak handitzeko, berdintasun-zuzendaritzak eta epaitegi espezializatuak modu iraunkorren sendotzeko eta indarreko legeria berraztertzeko konpromisoa hartzeko.
- 3.- Lizartzako Udal honek herritarrentzako, eta bereziki emakumeentzako, dauden baliabideen gaineko informazioa eskuratzeko bideak erraztuko ditu eta dagokion lurralde mailan, indarkeria matxistaren kontrako zerbitzu-sarearen funtzionamendu egokia, elkarlana eta koordinazioa bultzatuko du, beti ere, kontuan hartuz adin txikikoak eta biktimen seme-alabak.
- 4.- Lizartzako Udal honek, neskei, gazteei eta emakume helduei zuzendutako jabeakuntza jarduerak abiatuko ditu, besteak beste ondorengo gaiak jorratu ahal izateko modu iraunkorren: autodefentsa feminista, bikote harremanak eta harreman sexu-afektiboak, amodio erromantikoak, sexualitate libreak, etab.
- 5.- Lizartzako Udal honek, nerabeei eta gazteei zuzendutako sentsibilizazio eta formazio jarduerak iraunkorrak abiatuko ditu emakume eta gizonen arteko harreman parekideak sustatzeko xedez, zehazki: hezkuntza sexu-afektiboa lantzeko, indarkeria matxisten askotariko adierazpenak desnaturalizatzeko, baiezko onspena lantzeko, maskulinitate ereduak lantzeko, etab.
- 6.- Lizartzako Udal honek, indarkeria matxista jasan duten emakumeen erreparazio eskubidea lantzeko jarduera iraunkorrak martxan jarriko ditu besteren artean, omenaldiak, zineforumak, bisibilizazio ekimenak (kaleen izenak edo jardunaldiak, kasu), kalte-ordainketak, akonpainamendu soziala, etab. Jasoz.
- 7.- Erakunde honetatik, borroka feministaren alde hartu dugun konpromisoa berretsi nahi dugu, indarkeriarik gabeko gizarte demokratiko bat eraikitzeko bide eta tresna nagusia den heinean.



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

8.- Bat egiten dugu mugimendu feministak azaroaren 25erako deitutako mobilizazioekin, eta jendarte osoari ere dei egiten diogu mobilizazio horretan parte har dezan.

Azaroak, 25, Emakumeen kontrako indarkeria ezabateko nazioarteko egunari buruzko adierazpen instituzionala, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

BOSGARRENA. ATXIKIMENDUA GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO HAUR ETA GAZTEEN SUSTAPENERAKO ERAKUNDEARTEKO SAREARI, GAZTEMATIKARI

Botere publikoek haur, nerabe eta gazteei dagokienez duten ardura berezia ez da haiek babestera mugatzen; haur eta gazteen sustapena sustatzea ere badute xede. Haur, nerabe eta gazteen inguruko berariazko politika publikoetan, babesa eta sustapena alderdi osagarri eta ezinbestekoak dira; izan ere, pertsonen bizitzako aldi horien berezko zaurgarritasunaz arduratzea bezain funtsezkoa da gizakien bizitzan oinarritzako diren etapa horietan haien garapen osoa bultzatzea. Haur eta gazteen sustapenerako politikek, haien babeserako politikekin batera, haur, nerabe eta gazteentzako berariazko jardueren esparru bat osatzen dute eta, aldi berean, haur, nerabe eta gazteen eskubideekiko ardura areago nabarmentzen dute eta eraginkorrago egiten, hala politika publiko guztietan nola gizarte bizitzan.

Euskal Autonomia Erkidegoak oraindik gazteriari buruzko lege orokor edo globalik ez badu ere (onartzeko bidean dago), ezin da bazter utzi arlo horretan izan den jardura arauemaile eta planifikatzailea, besteak beste gazte planetan jaso. Arautze eta partaidetza jarduera hori lagungarria izan da haur eta gazteen sustapenaren jarduketa esparrua garatu, moldatu eta ezagutzera emateko; horren fruitu gisa nabarmendu daitezke, adibidez, Euskadiko Kontseiluaren 6/1986 Legea eta Kultura sailburuaren 1999ko abenduaren 10eko Agindua, Gazteen Euskal Behatokiari buruzkoa.

Hain zuzen ere, azken hogeita hamar urteetan Gipuzkoako gizarte zibilak eta erakunde publikoek ibilbide nabarmena egin dute haur eta gazteen sustapenean. Ibilbide horrek ardura publikoa eta lankidetzazko partaidetza baliatzeko eredu bat ekarri du, hiru etapak, haurtzarora, nerabezarora eta gazteria, *continuum* gisa hartzen dituen. Haur eta gazteen sustapenerako politika sektoreen arteko koordinazioa bultzatu eta zeharkako eragina izan nahi duen arlo gisa eratu da haur, nerabe eta gazteekin zuzenean esku hartzeko zerbitzu propioak dituen, haur eta gazteen



LIZARTZAKO

UDALA

GIPUZKOA

partaidetza sustatuz politika sektorial guztietan eta gizarte bizitzan haur, nerabe eta gazteekin adeitsua edo haien aldekoa izango den ikuspegi bat sortzeko.

Gertuko udalen ardurapeko zerbitzu eta jardueren aldeko apustua egiten jarraitu dugu, bai eta koordinazio eta laguntza lanetan Gipuzkoako Foru Aldundiaren funtzioa egituratzen eta indartzen ere, udalaz gaindi eta lurralde mailan. Apustu horri esker, 2009an Gipuzkoako Haur eta Gazteen Sustapenerako Sarea, Gaztematika deitua, sortu zen. Sare horrek, hainbat urtez martxan egon eta hobetuz eta prozesu eta aktibo baliotsuak sortuz jardun ondoren, udalen eta aldundiaren arteko lankidetzak hitzarmenak oinarri harturik, Gipuzkoako biztanleria eta lurralde ia osoa hartzen du, eta ehun zerbitzu egonkor baino gehiago ditu martxan.

Ibilbide hori eginda, gaur egun ezinbestekoa da sare hori juridikoki berrestea, mantentzea eta are sakontzea, jardunbide egokiak trukatzeko eta arlo horretan zailtasun edo gabezia gehien dituzten udalei laguntza instituzionala emateko ez ezik, Gipuzkoako Lurralde Historikoan partaidetza eraginkorra sendotzeko topagune eta proposamenen iturri izan dadin, jardunbide egokiak partekatu ahal izateko sare eta esparruak eraikiz, sinergiak bilatuz eta gazteen sustapenerako prozesuak berrelikatuz, modu horretan sorkuntza partekatuaren eta lankidetzazko gobernantzaren alde eginez. Foru dekretu honek, beraz, aitorpen juridikoa ematen dio sareari, eta, horrekin batera, baita merezi duen bultzada ere.

Horren ondorioz, 2019ko apirilaren 16an, elaborazio eta kontraste prozesu zaindu baten ondoren, besteen artean EUDELekin, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Haur eta Gazteen Sustapenerako Erakundearteko Sarea sortzeari buruzko Dekretua onartu zen. Onarpen honekin Sareak aintzatespen juridikoa ematen zitzaioan eta, bide batez, merezi duen bultzada.

Hain zuzen, Dekretu honen 12. artikuluan, Udalak Sareari atxikitzeari buruz ondorengoa esaten da:

12. artikulua. Udalak eta gainerako tokiko erakundeak Haur eta Gazteen Sustapenerako Erakundearteko Sareari atxikitzea.

- 1. Udalen atxikimendua sarera, honi buruzko berriazko udal akordioaren bidez gauzatuko da.*
- 2. Sareari atxikitzeak gizonen eta emakumeen arteko berdintasun ikuspegia txertatzea dakar berekin, eta konpromiso hauek betetzea:*



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

1. Aktiboki parte hartzea Sareko organo eta egituretan esleitutako pertsonen bitartez, hala arlo politikoan nola teknikoan.
2. Proposamen eta ekimenen bidez Sarearen funtzionamendua bultzatzea.
 - a) Sareko organo edo egitura eskudunen bidez Foru Aldundiak tokiko erakundeen alde haur eta gazteen sustapenaren arloan bideratzen dituen diru-laguntza lerroak banatzeko irizpideak zehazteko eta ezartzeko prozesuetan parte hartzea eta erabakiak hartzea.
 - b) Haur eta gazteen sustapenerako programa zehatzak, prestakuntza programak, topaketak, mintegiak eta bestelako jarduera hezitzaile batzuk proposatzea, Sarean eskumena duten organo edo egiturek eztabaidatu ditzaten eta erabakiak har ditzaten.
 - c) Haur eta gazteen sustapena errazteko gida metodologikoak edo bestelako edozein bitarteko edo tresna proposatzea, eta batez ere sustapen planen ereduak eta estrategiak diseinatzea.
 - d) Sareari ezagutzera ematea haur eta gazteen sustapenaren arloan martxan jarri diren jardunbide egokiak, parte hartzen duten erakundeen ezagutza aberastu dezaketenak eta haur eta gazteen sustapenerako foru edo udal politikak –eta gainerako tokiko erakundeenak– hobetu ditzaketenak.
 - e) Sarearen aurrekontuak ezagutzea eta, hala badagokio, haien inguruan erabakiak hartzea, horretarako eskumena duten organo edo egituren bidez.
 - f) Foru aldundiak udalerriei eta gainerako tokiko erakundeei laguntza tekniko eta lankidetzaz eskaintzeko aurrera eramaten dituen prozesuetan laguntzea, arazoak edo konpondu gabeko auziak behar bezala identifikatuz eta haur eta gazteen sustapenerako tokiko politikak hobetzea xede duten arauak eta ordenantza ereduak, proposatutako gida metodologikoak eta Sarean bultzatzen den bestelako edozein ekimen sustatuz.
 - g) Sarea dinamizatzea dauden egituren bitartez, eta, beharrezkoa balitz, Foro Teknikoak koordinatzea.



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

Gure udalaren kasuan, aipatutako Sarean (...)tik hartu du parte, eta denboraldi horretan, parte-hartzea, nagusiki, urtero hitzarmenak sinatuz gauzatu da.

Horren ondorioz gure entitatea, denboraldi horretan, Gaztematika Sarearekin lankidetzan aritu da, eta Sarea osatzen duten entitate desberdinek egiten duten lanaren onurak jaso ditu: Erreferentziazko markoa, eztabaidarako eta elkarrizketarako hainbat gune, baliabide, gaitasun eta prozesu bateratuak, aholkularitza tekniko eta bide-laguntza, lurralde mailako plan komun bat, arloari buruzko ezagutza, jakintza eta prestakuntza, diru-laguntzak, lurralde mailako programak, proiektuak eta kanpainak, ...

Horrenbestez, gure udalak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Haur eta Gazteen Sustapenerako Erakundearteko Sarearekin bat egiteko xedez, hori arautzen duen Dekretuko 12. artikulua ezarritakoaren arabera, osoko batzarraren erabakimenera jarriko da dagokion atxikimendu erabakia hartzeko.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Haur eta Gazteen Sustapenerako Erakundearteko Sareari, Gaztematikari Atxikimenduari, adostasuna eman eta aho batez onartzea erabaki da.

SEIGARRENA. MOZIOAK

Ez dago moziarik

ZAZPIGARRENA. EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNERAKO ADIERAZPENA

Zioa

Aurten, 60 urte betetzen dira Eusko Ikaskuntzak, 1949. urtean, Euskararen Nazioarteko Eguna abenduaren 3an ospatzea erabaki zuenetik. Hirurogei urte igaro arren, oraindik orain, Euskal Herriko hizkuntza berreskuratzeko premia larriak bere horretan dirau.

Egia da euskaltzale eta ekintzaile askoren ahaleginak ez direla alferrikakoak izan, eta euskara orain dela 50 urte baino hobeto dagoela, askoz hobeto, baina ez aski.

Egia da, azken urteotan, lortu dugula Euskal Herriko lurralde guztietan aurrera urrats esanguratsuak egitea ere. Egun, inoiz ez bezala, euskaldunok berariazko erakundeak daukagu: Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, alde batetik; Lapurdin,



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

Nafarroa Beherean eta Zuberoan, bestetik; eta Nafarroa Garaian, azkenik. Baina ez daukagu hizkuntza politika bateraturik. Eta, gaur gaurkoz, asko egin dezakegu hainbat eremutatik hasita.

Badakigu, nola ez, edozein hizkuntza gutxituren arazo behinena, transmisiotik harago, erabilera dela, hizkuntza biziberritzea berau erabiltzea dela, alegia. Baina euskararen erabilera, xedea bada ere, ez da areagotuko, oinarrian ez badu hiztun talde zabala, sendoa, trinkoa eta engaiatua.

Hizkuntza gutxitu baten normalizazio prozesuaz ari garenean bi elementu izaten ditugu beti buruan. Batetik, hizkuntza hori normalizatzeko pertsonak hizkuntza gutxitua ezagutu behar dute, eta, bestetik, pertsona horiek hizkuntza erabili ahal izateko espazioak behar dituzte. Biak ala biak dira beharrezkoak, baldin eta hizkuntza hori normalizatuko bada.

Horregatik diogu lurgune euskaldunek edo arnagune geografikoek berebiziko garrantzia dutela euskararen normalizazio prozesuan. Euskaldun kopuru handia duten herriak eta auzoak dira euskaraz normaltasunez eta naturaltasunez bizi direnak, eta normalizatutako edozein hizkuntzak bete beharko lituzkeen funtzioak betetzen ditu euskarak, herri horien egunerokoan.

Baina urrats berriak egin behar dira, lurgune euskaldunen eta arnaguneen garapen iraunkorra bermatzeko oinarriak proposatuz. Izan ere, eremu horiek sendotzean eta zabaltzean datza normalizazio prozesu orokorraren arrakasta, hein handi batean.

Ugari dira berriazko lanketa eskatzen duten alorrak, eta horien guztien artean bada bat gizarte bizitzaren erdigunean dagoena: ekonomia, lana eta kontsumoa biltzen dituen arloa, hain zuzen ere, gizartearen eta herritarron bizitzaren motor nagusia baita.

Arlo sozioekonomikoak eta euskararen erabilerak elkarri egin behar dioten ekarpenaren garrantzia ez da gutariko inorentzat ezezaguna. Bai baitakigu ez dela hizkuntza normalizaziorik lanaren, ekonomiaren eta kontsumoaren munduan erro sakonik ez duenik. Sendoak dira, alor horretan ere, eragile nagusiak egiten ari diren urratsak. Eta horietan lehena, zalantzarik gabe, euskararen erabilera askotariko erakundeen izaeraren ezaugarrien artean txertatzea dago.

Erakunde adierazpen proposamena:



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

Hori horrela, Lizartzako erakunde honek, honako konpromisoak hartzen dituela adierazten du 2019ko Euskararen Nazioarteko Egun honetan:

- 1.- Erakundeak lehentasunez erabiltzea euskara, bere jakinarazpen eta gainerako erakunde, hornitzaile zein elkarteekiko harremanetan.
- 2.- Gure administrazio publikoaren kontratuetan hizkuntza irizpideak zehaztea eta ezartzea.
- 3.- Administrazio publikoen kontratazioetan ziurtagiriak —Bikain eta Bai Euskarari, besteak beste— bateratu eta indartzeko neurriak hartzea.
- 4.- Euskararen erabilera sustatzen duten hainbat tresna sustatzea. Hala nola, softwarea eta oinarritzko aplikazioak euskaraz, astialdirako IKT produktuak, .eus domeinua eta euskararen erabilera interneten.
- 5.- UEMA babestu, indartu eta zabaltzea.
- 6.- Urte askotako hitzarmenak sustatzea euskarazko tokiko komunikabideen jasangarritasun ekonomikoa eta egonkortasuna bermatzeko.
- 7.- Euskararen erabilera eta presentzia bermatzea erabiltzen ditugun komunikabide guztietan.
- 8.- Kirol arloa euskalduntzeko bidean lan egitea, federazioarekin eta tokiko klubekin elkarlanean.
- 9.- Gazteentzako euskarazko aisialdi zerbitzuak sustatu eta zabaltzea.
- 10.- Familia eremuetan euskararen erabilera eta transmisioa sustatzea.
- 11.- Migratzaileentzako laguntza ildoak aktibatzea, euskara ikasteko eta euskal kulturara hurbiltzeko aukera izan dezaten.
- 12.- Enpresetan euskararen erabilera normalizatzeko ekimenak aktibatzea, euskara laneko eta zerbitzuetako hizkuntza izan dadin.
- 13.- Jarduera arau emailea garatzea, enpresetan euskara erabiltzeko planak indarrean jartzeko.



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

14.- Eremu guztietako eragileekin —hau da, enpresa elkarteekin, sindikatuekin, gremioekin, merkataritza ganbarekin eta beste hainbat erakunderekin— akordioak lortzea, euskararen normalizazioa bultzatzeko lana har dezaten.

15.- Herriko gizarte eragile eta euskalgintzarekin batera elkarlanari eustea.

Euskararen eguna dela eta adierazpena, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

Eta beste gairik ezean, alkateak amaitutzat eman du bilkura, arratsaldeko 20:00etan, eta nik, idazkari naizen aldetik, horren fede eman dut.

ALKATEAK
Izpta: Iñaki Azpiroz Beldarrain

IDAZKARI-KONTU HARTZAILEAK
Izpta: Ana Jesus Zabala Garmendia